

Euskal AEko per capita gastua osasunean 2016an 2,9 hazi zen, 2.839 eurora iritsita

2016an, administrazio publikoen gastua osasunean %16,1 da haien guztizko gastuaren aldean, 2005ekoa baino portzentajezko puntu bat gehiago ia

ELGAko "System of Health Accounts-SHA 2011" metodologiarekin kalkulaturiko osasun-gastu arrunta 6.172 milioi euro izan ziren 2016an, BPGren %8,7, Eustaten datuen arabera.

Osasun-gastuak neurtzen du osasunerako ondasun eta zerbitzuen azken kontsumoa; alegia, gastu arrunta. Gastu horren finantzaketak barnean hartzen ditu administrazio publiko guztiak eta derrigorrezko aseguruak, borondatezko ordainketa-sistema sanitarioak eta Familia-etxeen ordainketak.

2005-2016 aldian, administrazio publikoen (denak batera hartura) gastuaren urteko batez besteko aldakuntza %4koa izan da, eta familia-etxeen ordainketetan eta borondatezko aseguruetan %5ekoa izan da. 2016an administrazio publikoek gastu arruntari eginiko ekarpena 4.337 milioi eurokoa izan zen, %70,3 beraz, eta familia-etxeen eta borondatezko ordainketa-sistema sanitarioen ekarpena %29,7 izan zen, 1.835 milioi euro.

1. taula: Euskal AEko Osasun Kontuaren datu eta adierazle nagusiak. 2005-2016

					Aldakuntza-tasa (%)	
					Urteko batez besteko	
	2005	2010	2015	2016	2016/2015	2016/2005
OSASUN GASTU ARRUNTA, GUZTIRA (mila eurotan)	3.891.427	5.641.786	5.994.752	6.171.538	2,9	4,3
Herri Administrazioak/ Derrigorrezko aseguruak	2.817.631	4.190.948	4.233.033	4.336.919	2,5	4,0
Borondatezko sistemak/Etxekoen ordainketa zuzena	1.073.796	1.450.838	1.761.719	1.834.619	4,1	5,0
Biztanleko gastua (eurotan)	1.844	2.598	2.759	2.839	2,9	4,0
BPGren gaineko gastua (%)	6,7	8,5	8,8	8,7	-0,1 (*)	4,9 (*)
Herri Administrazioen gastu guztiaren gaineko Herri Administrazioen Osasun gastua (%)	15,2	15,4	16,0	16,1	0,1 (*)	:

(:) datu ez eskuragarri

(*) Aldekoa, ehunekotan


Iturria: EUSTAT. Osasunaren kontua

2006tik 2016ra bitartean Euskal AEn osasunari bideraturiko per capita gastuaren aldakuntzak eduki du bilakaera bat zeinek antz handia baitu ELGAko herrialdeen batez bestekoarekin, 1. grafikoan ikus daitekeenez, nahiz eta Euskal AEn aldakuntza handiagoak diren erregistratzen eta, halaber, tasa negatiboak une zenbaitetan. Halatan, Euskal AEko osasunaren per capita gastuaren aldakuntzak hagitx hazkunde altuak eduki zituen 2006-2009 aldian, %10eko hazkundera helduz, eta urte horretatik aurrera beheratzen hasi zen.

ELGAko herrialdeen urteko batez besteko aldakuntzak joera bera eduki du, baina leunagoa; 2006-2009 aldian hazkundera %3ren ingurukoa izan zen; 2011n hazkundera txikiagoa izan zen, %0,2koa, eta hurrengo bost urteetan gora egin zuen eta, hala,

2016an aldakuntza %2,4koa izan zen, Euskal AEn erregistraturikoa baino bost hamarren txikiagoa.

Biztanleko osasuneko gasturen urte arteko aldakuntza tasa. (%)



Iturria: Eustat. Osasunaren kontua eta EKO-Osasungintza. ELGE

Administrazio publikoen ahaleginaren adierazlea –alegia, osasun-gastua administrazio publikoen guztizko gastuaren gainean– %16,1ekoa izan zen 2016an Euskal AEn, ehuneko 0,8 puntu gehiago ELGAko batez bestekoa (%15,3) baino eta ehuneko puntu bat eta bi hamarren gehiago Espainiakoa (%14,9) baino.

2. Taula. Osasun gastuaren adierazleak herrialdearen arabera. 2016

	BPGren gaineko gastu publikoa	Gastu guztiaren gaineko gastu publikoa %	Herri Administrazioen gastu guztiaren gaineko Herri Administrazioen Osasun gastua (1)	BPGren gaineko gastu guztia	Biztanleko gastu guztia (EAP, US\$)	Biztanleko BPG (EAP,\$)
OCDE 35 ⁽¹⁾	6,5	72,5	15,3	9,0	4.003	:
Alemania	9,4	84,6	21,4	11,1	5.452	48.943
Austria	7,7	74,1	15,1	10,4	5.273	50.522
Belgika	7,9	78,8	19,1	10,0	4.660	46.417
Canada	7,4	70,3	18,3	10,5	4.722	44.820
Danimarka	8,7	84,1	15,8	10,4	5.075	49.029
Espainia	6,4	71,2	14,9	9,0	3.257	36.305
Estatu Batuak	14,0	81,8	22,1	17,1	9.832	57.589
Finlandia	7,1	74,5	12,3	9,5	4.118	43.378
Frantzia	9,6	82,9	15,3	11,5	4.773	41.363
Irlanda	5,3	72,1	18,4	7,4	5.267	71.389
Islandia	6,8	81,5	16,4	8,3	4.208	50.746
Italia	6,7	74,5	13,4	8,9	3.429	38.380
Norvegia	8,9	85,1	17,5	10,5	6.175	58.808
Erresuma Batua	7,8	79,5	18,4	9,8	4.164	42.656
Suedia	9,1	83,5	18,3	10,9	5.348	48.905
Suitza	7,7	62,8	22,8	12,2	7.824	63.882
Euskal AE	6,1	70,3	16,1	8,7	4.283	49.445


EAP: Eros Ahalmenaren Parekotasuna

(1) Iturria: Health at a Glance 2017, hau da, Health Statistics 2017

Iturria: EUSTAT. Osasunaren kontua eta OECD Health Statistics 2018

ELGAK eskaintzen dizkigun beste adierazle batzuen **nazioarteko konparaketak** erakusten du ezen Euskal AEko **gastua BPGren** %8,7 dela, ELGAko batez bestekoaren azpitik, zeren hor %9,0koa den. Nolanahi den ere, **per capita osasun-gastua EAPn** (Erostekeo Ahalmenaren Parekotasunean, \$), **4.283** da Euskal AEn, ELGAko batez bestekoaren gainetik, 4.003, eta Finlandia (4.118) eta Espainia (3.257) bezalako herrialdeen gainetik; taulan goi-goian dira Suitza (7.824) eta Norvegia (6.175).

Osasun gastuaren adierazleak herrialdearen arabera. 2016



Iturria: EUSTAT. Osasunaren kontua eta OECD Health Statistics 2018 (2018azaroa)

Euskal AEko Osasunaren Kontuaren datuen analisi zehatzago batek, gastuaren xehatzetik eginga, erakusten du 2016rako ezen, **gastua funtzioen arabera** banatzean, pisurik handiena duela Osasun-asistentzia sendagarriak, zeina 2016an gastu arruntaren %54,7 izan baitzen eta, 2015aren aldean, %1,1 hazi baitzen. Garrantzian bigarren funtzioa Produktu medikoena da (farmazia-produktuak, protesiak...), gastu arruntaren %17,6, 2015aren aldean %8,2ko gehikuntzarekin. Egonaldi luzeko osasun-asistentziaren gastua %16,6 da gastu arruntaren gainean eta %3,5 hazi zen 2015arekiko.


3. taula. Euskal Aen osasun gastua funtzioen arabera (milaka euro). 2016

FUNTZIOA	2010	2014	2015	2016	Osasun gastu guztiaren gaineko %		Aldakuntza-tasa (%)	
					2010	2016	2015/2014	2016/2015
HC.1 Sendatzeko osasun-laguntza	2.986.866	3.174.484	3.339.386	3.377.200	52,9	54,7	5,2	1,1
HC.2 Birgaitzeko osasun-laguntza	95.767	112.301	117.576	115.411	1,7	1,9	4,7	-1,8
HC.3 Egonaldi luzeko osasun-laguntza	903.024	964.919	989.420	1.026.111	16,0	16,6	2,5	3,7
HC.4 Osasun zerbitzu osagarriak	341.665	280.808	291.227	302.873	6,1	4,9	3,7	4,0
HC.5 Osasun-produktuak (beste funtzioen bamean ez daudenak)	1.057.622	960.301	1.002.500	1.084.860	18,7	17,6	4,4	8,2
HC.6 Prebentzio zerbitzuak	75.203	79.771	81.486	85.488	1,3	1,4	2,1	4,9
HC.7 Osasun-sistemaren eta osasun-finantzaketaren administrazioa	181.639	176.667	173.157	179.595	3,2	2,9	-2,0	3,7
OSASUN GASTU ARRUNTA, GUZTIRA	5.641.786	5.749.251	5.994.752	6.171.538	100,0	100,0	4,3	2,9

Iturria: EUSTAT. Osasunaren kontua

Funtzio bakoitzaren xehatze handiagoa eginez geroz, non asistentzia-mota zehazten den (ospitalizazioa, anbulatorioa eta etxez etxekoa), ikusten da ezen 2005-2016 aldian ospitaleko asistentziaren gastua %3,3 hazi dela batez bestez, zainketa anbulatorioetan (kanpo-kontsultak eta eguneko ospitalizazioa) eginikoa %5,2 eta egonaldi luzeko asistentzia %6,6 (funtzio honek barnean hartzen du mendekotasunen bat dutenen zainketa sanitariora bideraturiko gastua). Bestalde, etxez etxeko asistentziako gastuak (sendatzekoak eta errehabilitaziokoak) batez bestez %10,6 hazi dira 2005-2016 aldian, eta 2005ean gastu arruntaren %2,2 izatetik iragan dira 2016an %4,1 izatera.

Osasun gastuaren banaketa hornitzaileen arabera. 2016



Iturria: EUSTAT. Osasunaren kontua

Hornitzaileen araberako gastu-egitura aurreko aldietakoa bezalatsukoa da; gastu-zatirik handiena (%39,4) ospitaleetan gauzatu zen eta, ondoren, asistentzia sanitario anbulatorioaren hornitzaileak datoz, %22,6rekin. Egonaldi luzeko egoitza-establezimenduak gastu arruntaren %11,4 izan ziren. Txikizkariak eta produktu medikoen hornitzaileak delakora bideratutakoa gastu arruntaren %17,6 izan zen, eta hura hazi zen gehien 2015aren aldean, %8,3.

Gainerako gastua dagokie Zerbitzu lagungarrien hornitzaileei (garraio sanitarioa, laborategiak), prebentzioko zerbitzuen hornitzaileei, osasun-sistemaren administrazioari eta ekonomiaren gainerako arloei; azken honek barnean hartzen ditu familia-etxeak etxeko laguntza-emaile bezala.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62